

**LAN BATZORDE IREKIAK****TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****1.5 ordu****EGUNA****2018-04-10****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Felix Maiz

Jose Kruz Baztarrika

Nikolas Igarzabal

**ERABAKIAK****GAIA****EKINTZAK****ARDURA  
DUNA****NOIZKO****ARGITERIA**

- Bando bat zabaldu berri da argindarraren kontsumoaren inguruan antolatu diren hitzaldi batzuen inguruan.
- Apirilak 18an eta maiatzaren 14an izango dira; lehen eguna fakturaren inguruan eta bigarrena kontsumoa jaisteari buruz.

**AZTIRIKO TABERNA**

- Kontsultatu da aurreko bileran komentatutakoa, eta esan digutenez, laguntza hauek epe luzerako alokairuetara bideratuta dago (15 urte inguru), beraz, Aztiriko kasurako ez luke balioko, kontratua laburragoa delako.

**BASERRIBIDEAK**

- Azkartzako bidea egoera kaskarrean dago, pitzatuekin, eta horri eman zaio lehentasuna, gehiagora joan aurretik.
- Aurrekontua eskatu dugu herriko bide guztien diagnostiko bat egiteko eta behingoz garbi jartzeko gauza bakoitza zer den. Aurrekontua 17.000€koa da eta epea 18 hilabetetakoa. Asmoa, komisio txiki bat sortzea litzateke gaia modu irekian lantzeko.

**MINATAKO BIDEA**

- Mutiloko udalak gordeta dauka diru kopuru hori, eta guk ere aurrekontuetan kontuan hartuta dago. Aldundiak ere gordeta dauka partida bat horretarako.
- Hilaren 18an aldundiarekin bilera bat egingo da proiektuari forma emateko.
- Luizirik handiena Gabiriako zatian dago, eta horri aman nahi zaio lehentasuna, gehiagora doalako eta guztiz joaten bada bidea erabat itxita geratuko delako.

**OSTATU**

- Goiko logelak alokatu ahal izateko proiektuari buelta batzuk ematen ari gara, baina nahiko berde dago oraindik kontua.

<b>ALEGI AUZOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrera doa proiektua</li> </ul>		
<b>LANDA GARAPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ur kloratua zein etxetan dagoen inbentarioa entregatu zaio aldundiari, eskatu bezela.</li> <li>• Ur zikinena ere idatziz bidali zaie, aurrekonturik prestatu gabe.</li> </ul>		
<b>DATOZEN OBRA POSIBLEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orbeldegiko errepide zatia uda alderako utziko da.</li> <li>• Eguraldiak laguntzen duenean Ostatu aurreko marra horiak margotuko dira auzolanean, eta baita panel informatiboak jarri ere.</li> </ul>		
<b>ESKOLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Horma bat kendu eta kristala jartzeak (irakasleek eskatuta) 10.000€ko aurrekontua dauka, eta diru 5.770€ko laguntza lortu da.</li> </ul>		
<b>ARROAKO PROIEKTUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxetik bultzatzen saiatuko gara, herriarentzat duen interesa ikusita.</li> </ul>		
<b>UDALETXEKO KOMUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeko komunak ez ditu baldintza egokiak betetzen eta irisgarritasunarekin erlazionatutako diru laguntza eskatuko da hau berritzeko.</li> </ul>		
<b>FRONTOI AZPI</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Obra egitea erabakita dago.</li> </ul>		
<b>AURREKONTU IREKIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldundi mailako aurrekontuak egiteko, herri desberdinetako jendea bildu nahi du aldundiak, eta Gabiria egitea proposatu dute. Hala egingo da. Ezkio, Itsaso, Mutilo eta Zerainekin batera.</li> <li>• Herriko gainerako elkarteei gonbidapena zabalduko zaie. Maiatzaren 23an izango da 18.00tan.</li> </ul>		
<b>AUZOLANA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Maiatzaren 26a, goizeko 9tan, Ostatu aurreko marra horiak margotu eta panel informatiboak jartzeko.</li> </ul>		

Hurrengo bilera: ekainak 12, 19:00tan